



Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programa.

II.ERANSKINA: BALIOA SORTZEKO ERALDATZEN

Urtea :2020 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Ikuspegi eskuin-ezkertia ahalbidetzen duten gaitasunak eta jarduerak sustatzea, bai egungo jardueraren ustiapena eta funtzionamendua, bai esplorazioa; aukera berriak sortzea, jardueraren eraldaketa sustatuz, jarduera berrien eta etorkizuneko enpresa eredu berrien balio ekarpenaren bidez.

ENTITATE ONURADUNAK

- Gipuzkoan kokatutako enpresak.
- Gipuzkoan kokatutako enpresen elkarteak eta klusterrak.
- EAEn kokatutako enpresa elkarteak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzeko dituztenak.
- Gipuzkoan kokatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko erakundeak.

DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz lagun daitezkeen jarduerak izango dira diseinu eta garapen proiektuak eta esperimentazio prozesuen ezartzea garatzea, eta baita ere ikerketak, analisiak eta azterketak, tresnak, kontzientziarioa eta sentsibilizazioa, sustapen eta dinamizazio ekintzak eta ebaluazioak, xede hauetarako:

- Enpresa arloko inteligentziari lotutako dinamika esperimentalak txertatzea.
- Enpresaren jakintza bereizgarria identifikatzeko eta modu adimentsuan ustiatzeko dinamikak (negoziaren eskumenak, oinarriko eskumenak eta balioa sortzea), etorkizunean potentzial handiagoa duten enpresa aukerak sortzeko.
- Enpresaren barruan aldeko testuinguru bat sortzea, pertsonen eta enpresen berezko gaitasunak aprobetxatzeko etengabeko dinamika baten bidez, bai barneko bai ingurunera irekia, negozio lerro edo jarduera ekonomiko berriak sustatzeko.
- Erabiltzaileak eta bezeroak enpresetan eragile aktibo bihurtzeko prozesuak txertatzeko.
- Negozio ereduak balio erantsi handiagoko proposamenetara bideratzea, serbituzioa barne -produktutik



produktu eta zerbitzu binomiora doan eboluzioa-.

- Negozio aukera berriak sortzen dituzten prozesuak ezartzea, enpresak dituen jakintzaren erabilera intentsiboa eta sormena erabilita, betiere merkatu balioko proposamenak aldeztatik egiaztatuta.
- Enpresak eraldatzeko prozesuak sortzea ekonomia zirkularraren esparruan, eta baita ere eko-diseinua eta eko-serbituzioa.
- Balio proposamen berriak egituratzea ekonomia sortzailearen hibridazioaren bitartez.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatua jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean. (Ikusi diruz lagungarriak diren kostuak 12.oinarrian).

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 75 izango dira, salbu eta hainbat proiektuetan -ikerketak, analisiak, azterketak, tresnak, kontzientziak eta sentsibilizazioak, ebaluazioak eta sustapen eta dinamizazio ekintzak- % 100 izango baitira.

EMATEKO PROZEDURA

Lehiaketa bidezkoa, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

Dirulaguntza hauek ez dira bateragarriak helburu bererako beste dirulaguntza, sarrera edo baliabiderek, baita edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional, europar edo nazioartekotik etortzen direnekin ere.

BETETZEKO EPEAK

Eskaerak aurkezteko epea: **2020ko irailaren 29an, goizeko 12:00etan amaituko da.**

Jarduerak hasteko epea: **dirulaguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.**

Proiektuen exekuzio data: **2021eko ekainaren 28a.**

Proiektuak justifikatzeko data: **2021eko uztailearen 28a**



ARAUDI APLIKAGARRIA

Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programaren 2020ko oinarri arautzaileak eta deialdia: II.ERANSKINA - Aukerak eta gaitasunak balio alorretan eraldatu. (2020ko uztailaren 21eko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. [GAO 144 zk. 2020ko uztailaren 30ean](#)).

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak
<https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ekonomia/programas-y-ayudas/competitividad/Balioa-sortzeko-eraldatzen>
- Eskaera kudeatzeko aplikatiboa
<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENENKO ZERBITZUA

Kudeaketa administratiboa: 943.113981

Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus